ADESLAS COMPLETA: ESTALDURA

1. Lehen mailako medikuntza

- Medikuntza orokorra eta erizaintza, kontsultan eta etxean bertan.
- Pediatria eta puerikultura hamalau urtetik beherako haurrentzat.
- Erizaintza. Zerbitzua kontsultan eta etxean bertan.

2. Larrialdiak

3.Espezialitateak

Medikuen kontsultategietan edo ospitalizazio erregimenean.

4. Diagnostikorako baliabideak

- **Analisi klinikoak, anatomia patologikoa eta zitopatologia.**
- **Erradiologia orokorra**: irudi bidezko diagnostikorako ohiko teknikak.
- **Diagnostikorako beste baliabide batzuk**: bihotzeko dopplerra, elektrokardiografia, elektroentzefalografia, elektromiografia, fibroendoskopia eta ekografiak.
- **Puntako teknologia darabilten baliabideak**: immunohistokimika, ergometria, Holter, medikuntza nuklearra, amniozentesia eta kariotipoak, erresonantzia magnetikoa eta TAC/eskanerra, TAC bidezko kolonografia, TAC bidezko koronariografia, PET.
- **Diagnostikorako baliabide interbentzionistak**: erradiologia interbentzionista baskularra eta erraietakoa, eta hemodinamika baskularra.
- **Proba genetikoak**: sintomak dituzten paziente gaixoei gaixotasunak diagnostikatzeko. Barne daude, halaber, amaren odolaren bidez fetuaren DNA aztertzeko probak, medikoki beharrezkotzat jotzen badira jaio aurreko baheketarako.

5. Prebentziozko medikuntza

- **Pediatria**: barne hartzen ditu prebentziozko kontrolak eta haurren garapenari lotutakoak.
- **Obstetrizia eta ginekologia**: urteko azterketa ginekologikoa, bularreko, endometrioko eta umetoki lepoko minbiziaren prebentziorako.
- **Kardiologia**: gaitz koronarioen prebentzioa berrogei urtetik gorako pertsonen artean.
- **Urologia**: urteko urologia azterketa, prostatako minbiziaren prebentziorako.
- **Familia plangintza**: tratamenduaren kontrola anobulatorioekin, UGB jartzea eta kontrolatzea (aparatuaren kostua barne). Tronpen lotura eta basektomia.

6. Tratamendu bereziak

- Arnasketa terapiak etxean bertan (oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentiloterapia).
- Odol edo plasma transfusioak.
- Logopedia eta foniatria. Prozesu organikoek eragindako hizkuntzaren, hizketaren eta ahotsaren patologien tratamendua.
- Laserterapia.
- Minaren tratamendua.
- Nukleotomia perkutaneoa.
- Giltzurrun gutxiegitasun akutu edo kronikoetarako hemodialisia.
- Kimioterapia.
- Onkologia erradioterapikoa.
- Giltzurrunetako litrotizia.
- Muskulu eta tendoien kaltzifikazioetarako talka uhinak.

7. Giza jatorriko organo, ehun eta zelulen transplanteak

Hezur muinaren transplante autologoa edo kornea transplantea.

8. Inplante eta protesi kirurgikoak

Bihotzeko balbulak, taupada markagailuak, bypass baskularren protesiak, barneko protesi traumatologikoak, begi barruko lenteak (monofokalak eta bifokalak), abdomena edo toraxa berregiteko sare sintetikoak eta mina tratatzeko gordailuak. Bular protesiak ere bai (mastektomia bidez kendutako bularra berregiteko).

9. Ospitalizazioa

Ospitalizazio obstetrikoa (erditzeak)

Barne hartzen du ginekologo obstetraren edo emaginaren tratamendua ospitalizazioetan, bai haurdunaldian, bai erditzean, baita jaio berriarentzako ohetxoa edo inkubagailua ere, ospitalean dagoen bitartean.

Ospitalizazio kirurgikoa

Barne hartzen ditu kirurgia behar duten patologiak tratatzeko espezialitate kirurgikoak, ebakuntza aurreko edo anestesia jarri aurreko azterketa (kontsulta, analisi klinikoa eta elektrokardiograma), ebakuntza ondoko bisitak eta sendaketak, kirurgia anbulatorio nagusia eta, hala badagokio, inplante kirurgikoak eta protesiak..

Kirurgiarik gabeko ospitalizazio medikoa

Barne hartzen ditu ospitalizazioa behar izan dezaketen patologien diagnostikorako edo tratamendurako espezialitate medikoak.

Ospitalizazio pediatrikoa

Hamalau urtetik beherakoentzat. Barne hartzen du ebakuntza kirurgikoagatiko edo gaixotasun medikoagatiko laguntza, bai ohiko ospitalizazioan, bai neonatologiako unitateetan (zainketa intentsiboak edo tarteko zainketak).

Ospitalizazioa zainketa intentsiboetako unitatean (ZIU)

Ospitalizazio psikiatrikoa

Aldez aurretik aseguru etxeko mediku taldeko espezialista batek diagnostikatu dituen gaixo akutu edo kronikoentzat bakarrik, aztoramen aldian daudenerako, erregimen itxian edo eguneko ospitalizazioko erregimenean; gehienez berrogeita hamar egunez urte natural bakoitzean.

Eguneko ospitalizazioa

Prozesu kirurgiko zein medikoetarako, onkologiako kimioterapia tratamenduak barne. Barne hartzen ditu egonaldiaren gastuak, sendagaienak eta ospitaleko egonaldian zehar diagnostikorako erabilitako baliabideenak.

10. Beste zerbitzu batzuk

- Anbulantziak (Adeslaseko mediku taldeko mediku baten preskripzioarekin).
- Erditzeko prestaketa.
- Podologia (gehienez 12 saio).
- Laguntza atzerrian (12.000 €).

11. Adeslas es Más

- Orientazio medikoko lerroa.
- Bigarren iritzi medikoa.
- Kirurgia errefraktiboa*.
- Psikoterapia: gehienez 20 saio urtean. Eta elikadura portaeren nahasmenduen kasuan, 40 saio. 21. eta 41. saioetatik aurrera, 24 €*.
- Ugalketa lagundua*.
- Medikuntza alternatiboak: homeopatia, osteopatia, akupuntura*.
- COVID-19 probak*.
- Etxez etxeko zaintzak, mendekotasuna edo kronikotasuna duten pertsonentzat*.
- Ibileraren azterketa biomekanikoa eta beherapenak barne zoletan*.

Estaldurei buruzko informazioa. Produktu honen baldintza espezifikoak Adeslas COMPLETA produktuaren Baldintza Orokorrak atalean daude.

*Prezio bereziak gure aseguratuentzat.

SegurCaixa Adeslas, S.A. de Seguros y Reaseguros. Egoitza soziala: Paseo de la Castellana, 259 C (Torre de Cristal), 28046 Madril; IFK: A28011864. Madrilgo Udal Erregistroan inskribatua: 36733. liburukia, 213. folioa, M-658265 orria.